

Bilbao, 7 de octubre de 2015

Bilbon, 2015eko urriaren 7an

Estimada/o compañera/o:

Tengo el placer de informarte de que en el día de ayer nuestro Colegio suscribió un Convenio con el Ayuntamiento de Bilbao para la prestación de un servicio de orientación jurídica a personas mayores, que se prestará en los Servicios Sociales de Base de Santutxu, Rekalde, Basurto, San Francisco y Deusto.

Con el fin de dotar a dicho servicio de un número suficiente de Letrados, la Junta de Gobierno del Colegio ha acordado convocar un concurso entre sus colegiadas/os ejercientes residentes, para la selección de cinco personas, interesadas en ofrecer asesoramiento jurídico a este colectivo, durante una hora a la semana, en horario de 10:00 a 11:00, y con adscripción a uno de los servicios sociales de base señalados.

Serán requisitos indispensables para acceder a la selección, contar con una **antigüedad en el ejercicio de la profesión de al menos cinco años** y estar dado de **alta en el turno de oficio Civil**.

Asimismo, se valorará especialmente:

- La participación en comisiones colegiales y, en particular, en aquellas relacionadas con el objeto del asesoramiento a prestar.
- La experiencia en asociaciones u organizaciones, públicas o privadas, relacionadas con la asistencia a personas mayores.
- La aptitud para la atención al público.
- La capacidad para prestar el servicio en euskera.

En caso de que resulte de tu interés formar parte del equipo de letradas/os, deberás cumplimentar la solicitud adjunta y presentarla, junto con tu curriculum vitae y la documentación que consideres oportuna, en las Oficinas del Colegio (Rampas de Uribitarte, número 3, 1º) siendo el **último día para su presentación el día 16 de octubre, viernes**.

Tras la revisión de CV, se contactará telefónicamente con las personas seleccionadas para mantener una entrevista, que tendrá lugar entre los días 21 y 23 de octubre.

Los nombres de las personas elegidas para formar parte del Servicio se darán a conocer mediante publicación en la página web del Colegio.

El día previsto para la puesta en marcha del Servicio es el 2 de noviembre, lunes.

Agradeciendo tu colaboración, recibe un cordial saludo.

JAVIER BOLADO
SECRETARIO

Lankide estimatua:

Gutun honen bidez hitzarmen baten berri eman nahi dizut. Hain zuzen ere, atzo gure Bazkunak eta Bilboko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten adineko pertsoneri laguntza juridikoa emateko. Zerbitzu hori Udalaren Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Unitate hauetan eskainiko da: Santutxu, Errekalde, Basurto, San Frantzisko eta Deustu-San Ignacio.

Zerbitzua martxan ipintzeko bost legelari behar dira; beraz, Bazkuneko Gobernu Batzordeak jarduneko bazkideen artean deialdi hau egitea erabaki du. Guztira, esan bezala, bost legelari hautatu behar ditugu; zerbitzua astero eskainiko da —ordu bat (10:00-11:00)—, aipatutako Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Unitateetan.

Hautagaiak baldintza hauek bete beharko ditu: **lanbidean gutxienez bost urtez aritzea eta zibileko txandan altan egotea**.

Horrez gain, honako kontu hauek ere baloratuko dira:

- Bazkuneko batzordeetan parte hartzea, batez ere, zerbitzuaren gaiari buruzkoetan.
- Adinekoen inguruko elkarte eta erakundeetan (publikoak edo pribatuak) esperientziarik izatea.
- Bezeroak artatzeko gaitasuna.
- Zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna.

Horrenbestez, zerbitzuan aritzeko interesa baduzu, mezu honekin batera doan eskabidea bete beharko duzu; era berean, zure curriculum eta interesgarria izan daitekeen dokumentazioa entregatu beharko dituzu Bazkunaren bulegoan (Uribitarteko aldapak, 3, 1. solairua); hori guztia egiteko **azken eguna urriaren 16a, ostirala**, izango da.

Curriculumak aztertu ondoren, aukeratutako hautagaiekin elkarrizketa bat izango dugu (urriaren 21ean edo 23an); horretarako, aurretik telefonoz deituko dugu.

Zerbitzuan aritzeko aukeratutako pertsonen izen-abizenak Bazkunaren web orrialdean jarriko ditugu.

Zerbitzua azaroaren 2an, astelehena, martxan hasiko da.

Zure laguntza eskertuz, jaso agur bero bat.

JAVIER BOLADO
IDAZKARIA